

2.007-KO EKAINAREN HAMASEIAN EGINDAKO UDALAREN ERAKETAREN AKTA

" ZUMAIAKO Udaleko Ekitaldi Aretoan, bi mila eta zazpiko ekainaren hamaseian goizeko bederatzia eta hogeitabost minutu direnean, bildu dira lehen deialdian, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195 artikuluan ezarritakoa beteaz, Udala eratzeko bilkura burutzeko zerrendan azaltzen diren zinegotzi hautatuak, zeinek alde zuzenetik bateraezintasun arrazoien, ihardueren eta ondare ondasunen aitopren bidezkoak aurkeztu izana frogatu duten korporaziokideen Interes Erregistroetan inskribatzearen ondorioetarako, joan den maiatzaren hogeitazazpian egindako udal hauteskundeetan aukeratuak izan direnak, hain zuzen.

TALDE POLITIKOA: E.A.J

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA, And.
Lide AMILIBIA BERGARETXE, Anderea.
Unai MANZISIDOR ANDONEGI, Jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE, Jauna.

TALDE POLITIKOA: ANV

Andoni ETXANIZ OSA, Jauna.
Miren Nerea EPELDE AZCUE, Anderea.
Joseba Josu SPIAZU AZKARRAGA, Jauna.

TALDE POLITIKOA: E.A.

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA, Jauna
Pilar ETXABE IRIONDO, Anderea.

TALDE POLITIKOA: EB-B/A

M. Cristina FORCADA UNANUE, Anderea.
Xabier OLAIZOLA ANTIA, Jauna.

TALDE POLITIKOA: PSE-EE / PSOE.

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ, Jna.
Paloma HEREDERO NEGREDO, Anderea.

Parte hartzen du eta ekitaldiaren fede ematen du idazkariak, Miren ETXEZARRETA GARMENDIA And, Udaleko Idazkariak, hain zuzen.

Bilkurara herritarrak etorri dira.

Idazkariak adierazten du batzarraldi horren helburua Udalaren eraketa dela, horrela betez martxoaren 13ko 8/1.991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako lege Organikoaren 195.1 artikulua eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikulua agindutakoa, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea, kasua balitz.

Behin idazkariak batzarraldiari hasiera emanez gero, Adineko mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1.991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurrikusitakoa betez, eta Mahai hori osatzen dutenak izango dira 59 urteko Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jna, Zinegotzi hautatu zaharrena izanik mahaiburu izango dena, eta 22 urteko Unai MANZISIDOR ANDONEGI Jauna, Zinegotzi hautatu gazteena izanik. Idazkari gisa Miren ETXEZARRETA GARMENDIA And. arituko da, berau izango delarik, baita ere, batzarraldi honetako idazkaria.

Mahaiko idazkariak irakurtzen ditu banan banan aldez aurretik berari entregatutako kredentzial guztiak, Zinegotzi hautatuen nortasuna kreditazen dutenak, eta Mahaikideek egiaztatu ondoren kredentzial horiek Zonako Hauteskunde Juntak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriek bat datozela ikusten da.

KORPORAZIOAREN ERAKETA.-

Aurreko operazioa egin ondoren eta kontuan izanik batzarraldi honetara etorri direla hautatuak izan diren Zinegotzi guztiak hau da, gehiengo absolutu legala, Adineko mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die zinegotzi hautatuei, eta korporazioa formalki eratua aitortzen du.

PSE-EE / PSOE, TALDE POLITIKOKO, Emiliano CABAÑAS GONZALEZ, Jna eta Paloma HEREDERO NEGREDO, Andereak, jarguaren jabetza hartzeko hitzez hitz konstituzioa betetzea zin egiten dute.

Gorporazio Lokalen Eraentza Juridikoa, Funtzionamendua eta Antolaketari buruzko Erreglamenduko 36. Artikuluak bigarren atalean dioenaren arabera, Udaletxe berria osatzen dutenen esku uzten dira Gorporazioak Udaletxeko kutxan edo eta Banketxetan dituen balore propioak eta eskudiruetan dituenaren agiriak gaurkotuta eta prestatuta, Gorporazioak eta bere Organismo Autonomoek duten Udal Jabetzen zerrendaren agiriekin batean.

ALKATEA AUKERATZEA.-

Idazkariak adierazten die bertan daudenei martxoaren 13ko 8/1.991 Lege Organikoaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den batzarraldi berdinean aukeratu behar dela Alkatea ere, lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki:

- Hautagai dira zerrendaburu diren zinegotzi guztiak.
- Hautesle dira bertan dauden zinegotzi hautatu guztiak.
- Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botuen gehiengo absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez zazpi botu beharko dira.

- Botazio honetan ez badu lortzen ezein hautagaik gehiengo absolutua, automatikoki aldarrikatuko da Alkate botu kopururik haundiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua. Enpatea gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Informe honen ondoren eta gai honi buruz ditugun aurrekinetan oinarrituz, Alkategai izendatzen dira ondoko zinegotzi hautatuak:

Maria Eugenia AGIRREZABALAGA OLAIZOLA Anderea. E.A.J. alderdiko zerrendaburu dena.

Andoni ETXANIZ OSA Jna. ANV alderdiko zerrendaburu dena.

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA Jauna, EA alderdiko zerrendaburu dena.

Maria Cristina FORCADA UNAMUNO Anderea, EB-B/A alderdiko zerrendaburu dena.

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jna. PSE-EE/P.S.O.E. alderdiko zerrendaburu dena.

Idazkariak txartela ematen dio, zurian, hautesle bakoitzari, adieraziz bertan jarri behar dituela Alkate izateko bere Botua ematen dion zinegotziaren izen-deituren aurretik dagoen laukitxoan gurutze bat , eta txartela doblatuta entregatzeko.

Behin txartel guztiak jasoz gero, botuen kontaketa egiten da eta idazkariak ozen irakurtzen ditu alkate izateko txartel bakoitzean proposatu den zinegotziaren izen-deiturak, honako emaitzarekin:

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA Anderea, LAU (4) boturekin,

Andoni ETXANIZ OSA Jna. boturekin

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta Jna. ZAZPI (7) boturekin

Maria Cristina FORCADA UNAMUNO Anderea..... boturekin

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jna. BI (2) boturekin.

Idazkariak bertan daudenei txartel guztiak egiaztatzeko aukera ematen die eta, halaber, eragiketa aritmetikoa ere, ondoren txartelak puskatuz.

Botazio honen emaitza ikusirik, **IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA Jauna** zinegotzi hautagaia aldarrikatzen da Udal honetako Alkate, botu gehiena lortu dituelako, **ZAZPI**, hain zuzen, gehiengo absolutu legala osatuz.

Ondorean, kontzejal hautatuak, Udaleko Alkate kargua onartzen duela adierazten du eta Alkate karguaren jabetza hartzen du Udalbatzaren aurrean eta honek jabetza hau ematen dio, indarrean dauden xedapenek ematen dituzten ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Jarraian, eskerrak luzatzen dizkio bere alderdiari eta beraren alde bozkatu dutenei, berarengan jarritako konfidantzagatik.

Udalan ordezkariak duten alderdien indarren parekotasuna ikusita asko hitzegin behar da eta lan asko egin, herri hau aurrera ateratzeko. Ez dago beste biderik. Alkate izendatua ni izan naizen arren, hemen gauden guztiok gara Alkate.

Alkate-Lehendakariak amaitutzat ematen du Udal Korporazioaren eraketa ekitaldia bertaratu diren guztiei eskerrak emanez, eta batzarraldia altxatzen du Akta honen buruan esandako egunean, hamarrak direnean, eta guzti hori **ZIURTATZEN DUT** idazkari gisa.

ZUMAIA, 2.007-ko ekainaren 16-an.-

O.E.
ALKATEA.-

IDAZKARIA.-